



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2022ko urriaren 4a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Jon Benito

(Zarautz, 1981)

Jon Benito Aranberri euskal idazlea Zarautzen jaio zen. Historia ikasketak egiten ari zela argitaratu zuen bere lehen poema liburua *Aingurak erreketan*. Prentsa artikulua ere idazten ditu.

Lagun minak



Gazte15 zatik osatzen dute puzzlea. Ez larritu lehenaren izena “Hamar” izatea. Autorearengan 10 urteko tartea bizitzaren epe naturala da eta. Beraz, lehen hitzetik idazleak bere asmoen berri ematen digu. Zintotasunez, bere / gure buruari egindako bi galdera aurkeztu ala bota digu: “Zer gertatu zitzaigun?”, “Zer ginen zauriaz lehen?”.

Erantzunak ezagutzeko ez da amaiera arte itxoin behar, nahiz eta han ere argi mintzo zaigun. Erantzunak ezagutzeko aski da irekiera eta itxiera poemen artean idazleak oparitzen dizkigun kontakizunak irakurtzea. Azken batean, amodioaren eta gorrotoaren, laguntasunaren eta minaren arteko eremuan bizi da / izan da idazlea; ez horregatik bakarrik bizi, toki eta garai zehatzean baizik. Lagunez inguratuta. Edo lagunez barneratua.

Izan ere, ainguratik askatu eta haizeak bultzatutako poemak dira lan honen egitura. Idazlearen ezin egonaren berri ematen digute, idazlearen auto baieztatzearen berri ematen digute. Horien euskarri gorpuzten dira narrazioak.

Bi galdera ximple horiek sortu burutazioak ezagutuko ditugu. Paisaia ezagunek gure arreta piztuko dute; ahaztutako izenak nahiz pertsonak eta pertsonaiak berpiztuko dira gure memorian; gertatu ez bazaizkigu gerta zitzaizkigukeen / litzizizkigukeen egoeratan autorearen burua ez ezik gurea ere ikusiko dugu nahastuta. Jakina, nahasi eta minduko gara, maitasunaren bila, askatasunaren bila, gorrotoaren bila. Eremu ezagunean murgilduko gara.

Ez nolnahi, baina. Bidaia horretarako idazle alimalezko batek lagunduko digu. Hamarnaka dabilen Jon Benitok. Bere unibertso pertsonal nahiz kolektiboa eskaintzen diguna, hizkuntza modernoa, modernizatua, berritua, fina, polisemikoa erabilia.

Autoreak zalantzati galderak plazaratu ditu; edo akaso zalantzak guk genituela pentsatu du. Anabasa horretan ziurtasun bat dago: autorea idazlea da, idazle ona. Izkutuan segitzea barkatzeraino ona, nahiz eta honetan denon aurrean biluzik geratu.

Alegia, gozatu duzu eta harrutuko zara liburua irakurtzean. Amaitu ostean, bi urrats gehiago eman, eta galdera korapilatsuek erantzun erraza dutela konturatuko bazara ere. Pirloren pase bat bezala; edo agian, Zarautzen lurrera erori zaizun izotz bolak ematen dizun minaren tamainakoa.

Jon Benitoren argitalpenak

Aingurak erreketan (2001)

Bulkada (2010)

Lagun minak (2022) **N BEN**

Kritikak esandakoak

“Lehenengo poema liburutik bigarrenera, 2010eko Bulkada horretara, bederatzi urte eman zituen Jon Benitok ezer argitaratzeke. Lagun minak honetarako bidea are luzeagoa izan da, hamabi urtera kaleratu baitu lan berria, oraingoan Farmazia Beltza argitaletxearekin. Hamabost narrazioek osatzen dute liburua, prosazkoak batzuk, poema forman besteak. Narrazioek poesiaren eragin ezin ukatuzkoa dute, halere, hala kontaeraren erritmoan, nola hitzen hautaketan. Poemak dira lehenengoa eta azkenengoa, hitzaurre eta hitzoste gisa liburua bi aldetatik mugarritzen dutenak eta autorearen arrazoiez eta, finean, poetikaz argibideak ematen dituztenak.

Zaila da liburuko gai nagusia zein den zehaztea, denak ala denak elkarrekiko loturan ageri dira eta, bereiziez in sarritan. Horixe dateke liburuaren gakoetako bat, nahia eta beharra, desira eta maitasuna, ideologia eta beharra banatu ezina. Ideia abstraktuen larre orbain gabekotik lokatzera daramatza Benitok aipatutako horiek eta gehiago, harreman pertsonalen eta gizartearen likidotasunaren argitan disekezionatzeko. Autoreak den-guztiaren konplexutasuna izendatzeko egindako saiakera da liburua, hizkuntza tresna nagusia izanik, hizkuntza bera bihurtuz, nolabait, garaiari egokituko zaion idazketa modu bat aurkitu asmoz. Aditza da eraikuntza prekario horren erpina, bere aditz-pertsonen zalantzekin —galdetu dizut naiz diot diogu—, aditz bihurtutako izenekin —inortu—, baina baita bestelako hitz berrituekin ere —amaitasun—. Bizi gaituen aroko hitz gastatuak birdefinitzeko eta esanahi intimoen janzteko hautua —asebetetze tasaren goranzko joera—, aldiz, liburua zeharkatzen duen aldarriaren zantzu da, aldagai poli(e)tikoak, ekonomikoak eta kulturalak norbanakoan urtzen direla, alegia.

Emozioen eta pentsamenduen gudu-zelaian, ordea, norbere identitatearen egituratze eta desegiteen borroka etengabea ere badago. Narrazioetako pertsonaiak puskatuak daude, minak zartatu ostean berriz ere osatzeko bidean. Ez ote zait, Hemen, aspaldi honetan, Maite Agirreren helegitea edo Uhartearen altxorra ipuinetako pertsonaiak, esaterako, bere identitatearen puzzlea osatu nahian dabilta, bat izateko falta dituzten puskak lotzen saiatuz. Horri ondo lotzen zaio autorearen arrisku formala eta beti erortzear dabilen hizkuntza ezin iradokitzaileagoa. Irakurleari dagokio maiz eman zaizkion piezekin puzzlea egitea. Soslaiak dira pertsonaiak, lausoak izatez. Gauza bat eta kontrakoa dira, tamaina eta forma askotariko piezez gorpuztuak egonik. Pintzelkada fin eta lausoez sortutako pertsonaien ertzak biderkatzea lortzen du Benitok. Alderdi formalaren ustiatzeak, berriz, halako erresonantzia bat ematen die gurutzatzen dituzten beldur, desira eta esperantzei, irakurlearengana irits daitezen. Metaforaren bilaketa obsesiboak komunikazio hori astun dezake zenbaitetan eta oro galdera den narratzailearen gehiegizko esku-hartzeek pertsonaiak itotzear jarri bestean, baina Jon Benitoren apnea ariketari zorrotasuna dario alde guztietatik. Baita ausardia ere.”

Asier Urkiza / Berria, 2022-06-26

Erabilitako iturriak

Ereiten

<http://www.ereiten.eus/berria/jon-benitoren-lagun-minak/>

Literaturaren zubitegia

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=167>

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8595>

Auñamendi Eusko Entziklopeida

<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/artikuluak/artikulua.php?id=eu&ar=10781>